

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > Argia Ereiten Sariaren XVI. ediziorako hautagaitzak (2. or.)
- > K.OS, Picassoren Gernikan inspiratutako zirku garaikidea (3. or.)
- > Getxoko Triatloi Olinpikoak 400 kirolari bilduko ditu irailaren 28an (4. or.)



*DalecandELA Fest
(3. or.)

Antzerkia. Hilak 20, larunbata, 20:00etan, Muxikebarrin, "Malditos tacones", Luisa Martín eta Olivia Molinarekin. 14€.

**A-
GENDA**

Haurrentzako ikuskizuna. Zirkua. Hilak 21, igandea, 18:00etan, Muxikebarrin, Rojo Telón taldearen hamargarren urteurrenaren gala. 8€.

"Konbinatu eta mugi zaitez!", 2025eko Europako Mugikortasun Astearen leloa

Irailaren 16tik 22ra, Udalak Europako Mugikortasun Astea ospatuko du, "Konbinatu eta mugi zaitez!" lelopean.

Ohi bezala, herritar guztientzako doako jarduerak izango dira eta, horien artean, berritasun gisa, "Bizikletan, adinik eta oztoporik gabe" nabarmentzen da, irailaren 18an, 19an eta 20an, egingo da Bizkaia Zubia plaza, 11:00etatik 13:00etara. Egokitutako trizikloen bidez, ibilaldiak eskainiko zaizkie adinekoei eta mugikortasun murriztua dutenei, baita desgaitasuna dutenei ere. Beste jarduerak batzuen artean, "Urratsen Erronka" edo "Patinetako ibilbide herrikoia" ere planteatzen da.



"Autorik gabeko eguna", ekimen europar honen jatorria, hilaren 21ean, igandean, ospatuko da; bertan, hainbat haur- jolas egingo dira eta udalerriko kirol elkarteek eta klubek parte hartuko dute. Horretarako, Algortako eta Areetako erdiguneak trafikorako itxita egingo dira.

Beste urte batez, Iñigo Urkitza Inurumen Unitateko zinegotziak herritarrak gonbidatu ditu programatutako jardueretan parte hartzera eta pentsatzera zer egin dezakegun etorkizun garbiago, osasungarriago eta jasangarriago baten alde.


Jardueren osagarri osoa barruan.

Getxo Folkaren erritmoan, publiko guztientzako musika eskainiz

Getxo egun hauetan disfrutatzen ari da herrian tradizio gehien duen jaialdietako batez. Igandera arte, hilak 14, Muxikebarri (ordainpeko kontzertuak), Areetako Geltokia plaza eta Ereaga hondartza agertokiak izango dira adin guztietako ikusleek jatorri desberdineko artista eta taldeen erritmo eskaintza zabalaz gozatzeko.

Xabier Zeberio & Andrés Isasi Musika Eskola eta Estrella Morente Muxikebarriko agertokitik igaro ondoren, ostiralean, hilak 12, Capercaillie talde mitikoaren txanda izango da, musika tradizionalako eskoziar talde honek hainbat markada ditu atzean eta nazioarteko erreferentzia da. Sarrera: 18€.

Larunbatean, hilak 13, Carminho igoko da agertokira, portugaldar fadoaren eta kantuaeren artisten belaunaldi berriaren erakusle. Interpretazio-modu berriak aztertzeko duen gaitasunagatik nabarmentzen da, kanon tradizionalak alde batera utzita. Sarrera: 18€.



Ordainpeko azken kontzertua, sarrera guztiak agortuta dituena, Benito Lertxundiren omenezkoa izango da. "Hunkidura kuttunak" ikuskizunean hainbat diziplinako artistak bilduko dira, eta ibilbidea egingo dute Orioko musikari handiaren musikan zehar.

Doako kontzertuak

Ereaga hondartzan, publiko gazteenak bi emanaldi gehiago izango ditu, 22:00etatik aurrera. Ostiralean, hilak 12, Chambaok flamenkoaren eta soinu mediterraneoaren nahasketarekin ekarriko du, eta larunbatean, hilak 13, Pascual Kantero "Muerdo" arituko da bere estiloen fusioaz, bere letren aberastasunaz eta bere mezuan duen konpromisoaz.

Areetako Geltokia plazan goizeko (13:30) eta arratsaldeko (18:30) emanaldiak izango dira ostiralean, larunbatean eta igandean. Anfiteatroan, gainera, ludoteka musikala egingo da. Kalez kaleko animazioa Black Raven Pipe Band gaiteroen talde irlandarrak egingo du.



IRAILAK 11 OSTEGUNA

Getxo Folk. Ordaintzeko saioa. 20:00etan, Muxikebarrin, Estrella Morente. Sarrerak agortuta.

Kontzertua. Arrozak & Musika. 20:00etan, Abian Kultur Elkartean, Martia eta Asammer Band. Sarrera doan.

IRAILAK 12 OSTIRALA

Getxo Folk. Areetako Geltokia plazan. 13:00etan La West Bluegrass Band eta 18:30ean Erromintxelak. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Capercaille. 18€. **Hondartzan.** 22:00etan, Ereagan, Chambao. Doan.

IRAILAK 13 LARUNBATA

Getxo Folk. Areetako Geltokia plazan. 11:00-14:00 eta 15:00-18:00, ludoteka musikala. 13:00etan Hutsun txalaparta eta 18:30ean Ene Kantak. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Carminho. 18€. **Hondartzan.** 22:00etan, Ereagan, Muerdo. Doan.

Ipuin kontaketa. Storytime. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Gina Ginger & Charlie Chives" (ingelesez). 3-7 urte. Izena emateko: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Ikuskizun musikala. Ene kantak. 17:00etan, kalejira Bizkaia Zubitik Areetako Geltokia plazaraino. 18:30ean ikuskizuna dantza eta euskal abestiek.

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismo bulegotik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdxi86>

IRAILAK 14 IGANDEA

Getxo Folk. Areetako Geltokia plazan. 11:00-14:00, ludoteka musikala. 13:00etan Sensei Music Ensemble eta 18:30ean Deira Band. Doan. **Ordaintzeko saioa.** 20:00etan, Muxikebarrin, Benito Lertxundiren omenez (sarrerak agortuta).

IRAILAK 17 ASTEAZKENA

Liburuen aurkezpena. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Butroeko uso ero" eta "H.P. Lovecraft: ahaztutako ametsa" liburuen aurkezpena, euskaraz, Oihane Amantegi idazlearen eta Unai González ilustratzailearen eskutik.

Zirkua. 5. Juana Bizkarra Arte Eszenikoen Egoitza. 20:00etan, Muxikebarrin, "K.os" entsegu irekia. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarri).

IRAILAK 18 OSTEGUNA

DalecandELA Fest. Portu Zaharrean, karpa gastronomikoa eta, 20:00etatik aurrea, kontzertuak: Drugos, Los Toldos eta Swingtronics. Informazioa: [@dalecandela.org](https://dalecandela.org)

Zirkua. 5. Juana Bizkarra Arte Eszenikoen Egoitza. 20:00etan, Muxikebarrin, "K. OS" ikuskizunaren aurrestreinaldia. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarri).

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Hiru txerrikumeak" (euskaraz) Alberto Bargosekin. 2-5 urte.

IRAILAK 19 OSTIRALA

DalecandELA Fest. Portu Zaharrean, karpa gastronomikoa eta kontzertuak. 18:00etatik aurrera, Fizz, Sotomonte, Susan Santos, Los Zigarros, León Benavente y Garbayo.

"Ramiro Pinilla" eta "Txiki Bascardo" literatur sarien banaketa. 19:00etan, Muxikebarrin. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarri eta Romo Kultur Etxean).

Hitzaldia. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Introducción a la Música Clásica". Hizlaria: Diego de Amigo, biolinista, konpositore garaikidea eta Barakaldo eta Gasteizko kontserbatorioetako irakaslea. Antolatzailea: All 'Antica Musica www.allantica.org

Zirkua. 5. Juana Bizkarra Arte Eszenikoen Egoitza. 20:00etan, Muxikebarrin, "K.os" ikuskizunaren aurrestreinaldia. Sarrera gonbidapenarekin (Muxikebarri).

IRAILAK 20 LARUNBATA

DalecandELA Fest. Portu Zaharrean, haurrentzako tailerrak, zeharkaldia igerian, karpa gastronomikoa eta kontzertuak. 13:00etatik aurrera, Half Nelsons eta Moses and The Tablets. 18:15etik aurrera, Los Retros, Gari, Coti, Ivan Ferreira y Akatz.

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Malditos tacones", Luisa Martín eta Olivia Molinarekin. 14€.

Ibilbide literarioa. Ramiro Pinillaren Getxotik. Irteera 10:00etan San Nikolas plazatik. Gidaria: Gustavo Iduriaga. Gaztelaz. Dohainik. Informazio gehiago eta izena emateko: www.getxo.eus/pinilla

Antzeztutako bisitak. Areetako bere sustraietatik. Irteera: 11:00etan, Bizkaia Zubiko plazako Turismo Informazio Gunea -PIT-etik. 6€ (12 urtetik beherakoak doan). Info: <https://labur.eus/53ujz7jp>

IRAILAK 21 IGANDEA

Autorik gabeko Eguna. Algortako eta Areetako zentroetan hainbat jarduera egingo dira, eta 08:00etatik 20:00etara trafikorako itxita egongo dira.

DalecandELA Fest. Portu Zaharrean, haurrentzako tailerrak, yoga tailerra, herri kirolak umeentzat, karpa gastronomikoa eta kontzertuak. 11:30etatik aurrera, Mago Oliver eta Rock & Kids. 17:00etatik, Santi Guzmán, Carlos Ares eta Hornies.

Ibilbide literarioa. Ramiro Pinillaren Getxotik. Irteera 10:00etan San Nikolas plazatik. Gidaria: Gustavo Iduriaga. Gaztelaz. Dohainik. Informazio gehiago eta izena emateko: www.getxo.eus/pinilla

Haurrentzako ikuskizuna. Zirkua. 18:00etan, Muxikebarrin, Rojo Telón taldearen hamargarren urteurrenaren gala. 8€.

Argia Ereiten Sariaren XVI. ediziorako hautagaitzak

Urriaren 5era arte egongo da zabalik epea "Argia Ereiten" Euskara Sariaren XVI. ediziorako hautagaitzak aurkezteko. Udalak antolatzen du Euskara Saria eta bere helburua da saritzea euskararen erabilera lagundu, sustatu edo zabaltzeko jardueretan nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoak.



Hautagaitzak aurkezteko inprimakia deskargatu eta euskara@getxo.eus helbidera posta elektronikoz bidali daiteke, edo

<https://labur.eus/b0jczn6t> webgunean bete daiteke. Saria Ibon Garagarza eskultore getxotarraren lana da.

Matrikulazioa euskaltegietan

Irailean zehar herriko euskaltegietan 2025-2026 ikasturterako matrikulatzeko epea zabalik egongo da.



Udalak, zentro horiekin eta EGIZU elkartearekin batera, zabalkunde-kanpaina bat jarri du abian, dagoen eskaintza zabala ezagutarazteko. "NIK ♥ EUSK Matrikulatu Getxoko euskaltegietan!" leloak adin guztietako ikasleek eskura ditzaketen aukera ugarien berri ematen du

(aurrez aurreko ikastaroak, tituluak lortzeko moduluak, autoikaskuntza, mintza-praktikak...).

Aurten berrikuntza gisa, deskontu bereziak izango dira C1 (16-18 urte), A1 (euskaraz zerotik) eta A2 mailako ikasleentzat. Udalak eta HABEK adin guztietako ikasleei dirulaguntzak ematen dizkiete. Informazio gehiago: <https://labur.eus/8uq9mjpc>



Azoka Ekologikoaren beste edizio bat

Larunbat honetan, hilak 13, 10:00etatik 15:00etara, Bio Getxo Nekazaritza Ekologikoaren XIX. Azoka egingo da Algortako Geltokia plazan, Ekolur elkarrekin antolatua eta Udalaren laguntzaz. Produktu ekologikoen ekoizpen eta kontsumo arduratsua eta osasungarria sustatzeko helburuaz, frutak, barazkiak, gaztak, marmeladak, ogia, kontserbak... jarriko dira salgai.



86.820 euro turismo-jardueretarako eta berrikuntzarako

Udalak 86.820 euro bideratu ditu zenbait jarduera turistiko erregularretarako eta Getxoko profesionalen eta enpresen berrikuntzarako. 55.798 euro izango dira 9 turismo-proiekturarako (irteerak belaontzian, ingurumen-ibilbideak familian, irteerak geodibertsitatea ezagutzeko, surfa, nabigazio-lizentzia lortzeko ikastaroak...). Polaris Nautika Eskola, Geobizi, Basatia, Marmitako Sailing, Ekobideak, La Salbaje Surf Eskola, 2 Milla, La Mar de Bien eta Kuin dira enpresa onuradunak. Bestalde, 16 enpresak 31.022 euro jasoko dituzte sustapen, dinamizazio eta berrikuntza ekimenetarako.

Begirale-ikastaroa Bizarra Lepoan elkarrekin

Bizarra Lepoan euskara elkarrekin begirale/hezitzaile ikastaroa antolatu du euskaraz 16 urtetik gorako ikasleentzat (DBH amaituta). Ikastaroa Aisiola Eskolak emango du, 2025eko urriaren 10ean hasi eta 2026ko maiatzaren amaierara bitartean; eskolak ostiraletan izango dira, 15:30etik 20:30era, San Nikolas Ikastolan, eta prezioa 475 eurokoa da (Udalak dirulaguntzak ditu horretarako: <https://labur.eus/yvauvik4>).

Gainditzen dutenek Eusko Jaurlaritzaren agiri ofiziala eskuratuko dute.

Tailerra ikasketen homologazioari buruz

Kosmopolis elkarrekin informazio-tailer bat antolatu du atzerrian egindako ikasketen homologazioari/baliozkotzeari buruz. Unibertsitateaz kanpoko ikasketak (Lehen Hezkuntza izan ezik) eta unibertsitatekoak hartuko ditu. Tailerra hilaren 19an izango da, 18:30ean, Romo Kultur Etxean. Aldez aurretik izena ematea gomendatzen da (688605551).

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Coti



Iván Ferreiro



Susan Santos



Carlos Ares

Arte-, kirol- eta haur-jardueren eskaintza zabala datorren asteburuan Portu Zaharrean

Coti, Ivan Ferreiro, Susan Santos eta Carlos Ares DalecandELA jaialdian

Datorren asteburuan, irailaren 18tik (osteguna) 21era arte (igandea), Portu Zaharrak DalecandELA Fest jaialdiaren laugarren edizioa hartuko du. Jaialdi solidario horren helburua Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren (ELA) aurkako borrokarako dirua biltzea eta, aldi berean, ahotsa ematea da. Udalak 100.000 euroko dirulaguntza eman du musikatik haratago doan ekitaldi hau antolatzeko. Sarrera doakoa izango da eta lau jardunalditan egingo da. Programazioak gaixotasunean jarri nahi du arreta aurrerapenaren eta gogo biziaren ikuspegitik, eta askotariko jardura artistikoak, kirolekoak eta haurrenak biltzen ditu, baita gune gastronomikoak eta kontzientziazio-ekintzak ere. Hori guztia, AEA ikusarazteko helburuaz, baita dirua biltzeko xedeaz ere, ikertzeko eta pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko.

Kontzertuak

Oholtzatik hogeitabat artista eta talde igaroko dira, bertaratuko direnen gozamenerako.

Ostegunean, hilak 18, arratsaldean, Drugos, Los Toldos eta Swingtronics taldeek joko dute. Ostiralean, hilak 19, arratsaldean, Los Zigarrros, León Benavente, Susan Santos, Garbayo, Sotomonte eta Fizzzz taldeen txanda izango da. Larunbatean, hilak 20, Ivan Ferreiro, Coti, Gari, Akatz, Los Retros, The Half Nelsons eta Moses and The Tablets igoko dira agertokira. Azkenik, igandean, hilak 21, Carlos Ares, Santi Guzmán, Hornies eta The Rock & Kids Band taldeek itxiko dute jaialdia.

Kirol- eta haur-jarduerak

Larunbatean, hilak 20, arratsaldean, ohiko zeharkaldia egingo da ELAgatik igerian Ereagako uretan.

Bi eta lau kilometro arteko bi ibilbide izango dira, Portu Zaharrean hasi eta amaituko direnak.

Igandean, hilak 21, goizeko ordutegian, yoga-tailerra izango da.

Gazteenek tailerrak izango dituzte larunbatean eta igandean, hilaren 20an eta 21ean. Gainera, igande arratsaldean, 6 eta 14 urte bitarteko umeentzat Herri Kirolen jardunaldi parte-hartzailea egingo da, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak garatutako kirol honen diziplina ezberdinen erakustaldia.

Kontzientziazioa

Jai-gunean "CuíDELA" karpa jarriko da; bertan ume eta nerabeei zuzendutako zereginak egongo dira empatia, errespetua eta elkarren zaintzaren balioa sustatzeko. DYAk ere lehen sorospenei buruzko tailer bat emango du umeentzat, eta desfibri-

ladorea eta BBB maniobrak erabiltzeko beste bat helduentzat.

Jasangarritasunari eta ingurumena zaintzeari buruzko tailerrak eta muralismo-jardura bat ere izango dira, besteak beste.

Trafiko-etenak

Udaltzaingoak bertaratuko direnen segurtasuna zainduko du eta barrutirako sarbideak arautuko ditu. Hala, zirkulazioa moztuko da La Olako biribilgunetik, eta Portu Zaharreko bizilagunei eta baimendutako langileei baino ez zaie pasatzen utziko.

Gainera, gaixotasuna ikusarazteko eta Getxoko gizartea sentsibilizatzeko helburuaz, Udalak Areetako kairiko pasealekua eta udalerriko igogailuak kolore berdez argizatuko ditu egun horietan (ELAren sinboloa). Info: www.dalecandela.org

K.OS, Picassoren Gernikan inspiratutako zirku garaikidea

Irailaren 17an, 18an eta 19an, osteguna, ostirala eta larunbata, hurrenez hurren, 20:00etan, "K.OS" ikuskizuna eskainiko da Muxikebarrin, Picassoren Gernikan inspiratutako zirku garaikidearen obra. Getxo Kulturak deitutako Juana Bizkarra Arte Eszenikoen 5. Egoitzan hautatutako lana da.

Agertokian zortzi artista aritzen dira, zortzi sinbolo bizi, koadroaren irudiak gorpuzten dituztenak: usoa, zezena, zaldia, soldadua, ama, kinkearen, aienaren eta belaun tinkatuaren emakumeak. Lanak mugimendu akrobatikoa eta narrazio poetikoa uztartzen ditu, eta bidaia emozionala da, gerraren izugarrikeriatik eta bizirik irauten dutenen samurtasunetik barrena. Sarrera gonbidapenarekin.



Komiki Azokak Rubén Pellejero eta Josune Muñoz omenduko ditu

Komiki Azokak, urriaren 3tik 5era Romon egingo denak, omenaldia egingo die Ruben Pellejero Bartzelonako artista beteanari eta Josune Muñoz dibulgatzaileari, sektorean egindako lan luzeagatik. Paco Roca, Marika Vila, Irene Márquez, Beñat Olea, Raquel Glu, Jon Mikel Bañales, Fernando Blanco eta Laura Pérez artistek ere parte hartuko dute ekitaldian.

Santa Eugenia plazan eta Ibaiondo kalean izango da Azokako merkataritza-gunea, 40 salmenta-postu izanik, eta Romo Kultur Etxea izango da jardura-programaren agertokia; besteak beste, hitzaldiak, topaketak egileekin eta sektoreko profesionalekin, sinadurak, aurkezpenak eta tailerrak izango dira. Bi guneetan, sarrera doakoa izango da.



Getxoko Triatloi Olinpikoak 400 kirolari bilduko ditu irailaren 28an

Irailaren 28an, igandean, 2025eko Getxoko Triatloi Olinpikoa-Agustin Ugarte Memoriala egingo da. Lehia aste honetan aurkeztu da, Fadurako TikiToki Zentroan, eta bertan izan dira Amaia Aguirre alkatea, Fran Rozas Getxo Triatloi zuzendaritza batzordeko kidea eta Ander Gaminde probako kirol zuzendaria.

400 triatleta bilduko dira 10:30etik aurrera Ereagako hondartzan, igogailuaren parean. Bertan, 1.500 metro inguruko igeri-probaren irteera hartuko da, hondartzaren beste muturrera iritsi arte, Arriluzeko kaiaren ondoan, non txirrindularitza-proba hasteko lehen trantsizioa egingo den. 40 kilometro inguruko izango da. Lehenengo Txomintxu igoko da, Areetarantz jaitsiko da, gero Lamiakotik eta Erandiotik igaroko da Erandio Goikora igotzeko, Akarlandatik igarotzeko, La Avanzadara jaisteko, Astrabudua itsasadarre- itzultzeko eta berriro Arriluzen amaitzeko. Puntu horretan lasterke-



Ezkerretik eskumara: Ander Gaminde, Amaia Aguirre y Fran Rozas

ta oinez egiteko bigarren trantsizioa izango da. 10 kilometro egingo dira Portu Zaharrera mutur batetik eta El Embarcadero hotelaren pareraino bestetik eramango duen bi itzuliko zirkuituarekin. Helmuga Portu Zaharrean egongo da.

Getxoko triatloiak, gainera, Bizkaiko Txapelketa gisa balioko du, eta

kirol honen erreferentia izan nahi du lurralde historikoan, Euskadiko maila handiko beste batzuekin lehiatu ahal izateko.

Antolatzailearen apustua, hau da, Getxo Triatloi Taldearena, urtero aurrera egiteko gaitasun handiko oso proiektu erakargarrian haztea da. Izan ere, 350 leku atera zituz-

ten, eta iraila hasi baino lehen agortu egin ziren. Horregatik, antolatzailerik beste 50 inskripzio gehiago izatea erabaki zuten.

Kirol hau goraka ari da, profesional- zein amateur-mailako lizen- tzien etengabeko gorakada kon- tuan hartuta, Estatuan 100.000 izatera iristen baitira.



Saioa Perez eta Izar Libano, lehenak junior-mailan Sellako jaitsieran

Sellako 87. Jaitsieran, abuztuan, 900 ontzi inguruk hartu zuten parte Arriendas eta Ribadesella arteko 20 kilometroak egiteko, eta Getxo Kayakako Saioa Perezek eta Izar Libanok irabazi zuten, emakumezkoen K2 junior-mailan. Euren denbora 1:41.12 izan zen. Bigarren postua Espainiako Taldeko Eneritz Aizpiolea eta Emily Fernandezentzat izan zen, hiru minutura baino gehiagora sartu baitziren.

Bikote getxotarrak zilarrezko domina irabazi zuen Espainiako

Maratoi Kopan Galiziako uretan. Horri gehitu behar zaio Izar Libanoren brontzezko domina txapelketa berean, K1ean.

Hitzaldia eta proiektzioak mendi inklusiboari buruz

Algortako Kultur Etxeak, Villamonten, "Mendi inklusiboa" hitzaldia hartuko du hilaren 25ean, 18:30ean. Ibilki Elkarteak emango du, eta Etorkizuna Mendi Taldeak antolatuko du, bere 50. urteurrena dela eta. Proiektzio hauek ere iku-



Getxo eta Castro lotzen dituen estropada uda-amaieran itzuliko da

Berriro jokatuko da Castro Kopa klasikoa, 118 urte beteko dituen estropada, Abrako ur bizkaitarrak Castro Urdialeseko ur kantabria-

rrekin lotzen dituen. Asteburu honetan ospatuko da eta 30 ontzi inguruk hartuko dute parte Estropada, Gurutzaldia, J80 klaseetan eta ziurtagiririk ez duten estropadetan. Bi estropada puntuagarriak Getxo eta Castro arteko lineako ibilbidea dira (16 eta 18 milia artekoa, larunbat honetan, hilak 13, 13:00etan), eta bigarreneko (igandean, hilak 14, 12:30ean) 12 milia inguruko estropada teknikoak programatzen dira Castro Urdialeseko uretan.

Yamamay beti izan da faborito nagusietako bat, 16 aldiz irabazi ondoren.